

# MU da eskaintza akademikoa Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Espaziora egokitu duen lehen euskal unibertsitatea

2008/02/13

**Donostia 2008ko otsailak 13a.** Datorren urtetik aurrera, Mondragon Unibertsitatearen eskaintza akademikoa Europara egokituta egongo da. Izan ere, 2008/09 urteaz geroztik, Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Espaziora egokitutako zortzi titulazio eskainiko ditu. Horrela, eskaintza akademikoa europar espaziora egokitu duen lehenengo unibertsitatea izango da. Egokitzapen horrek agerian utzi du Mondragon Unibertsitatearen izaera berritzaile eta aitzindaria, zazpi urte baino gehiago eman baititu Mendeberrri izeneko hezkuntza-ereduarekin lan egiten.

Eredu hori bat dator europar espazioaren eskakizunekin eta hezkuntzaren bikaintasunari begira ezarrita dago. Zalantzarik gabe, Unibertsitatearen apusturik garrantzitsuenetako bat izan da eta, haren helburua, enpresa eta erakundeetan sortzen ari diren premia eta aldaketei erantzutea da. Hala, Unibertsitatearen arduradunen arabera, premia eta aldaketa horiek derrigorrez eskatzen zuten hezkuntza-eredua goitik behera aldatzea. Era horretan, aurea hartu zioten Europan goi-mailako hezkuntzari begira bultzatutako erronkari.

Behin hezkuntza-eredua aldatzeko beharra hautemanda eta aldaketa hori ikasprozesuan gauzatzeko metodologia aplikatuta, azken urratsa baino ez zen falta Europara hurbiltzeko bidean: eskaintza akademikoa egokitzea. Hori errealitate bihurtuko da datorren ikasturtean. Hala, Mondragon Unibertsitateak egindako ahaleginari esker, ikasleek, gogoa badute, europar esparruan sartzeko eta bikaintasunean trebatzeko aukera paregabea izango dute. Prestakuntzaren europar trena hartu ahal izango dute, espazio bateratu horretara egokituko den lehenengo belaunaldikoak izango baitira. Hain zuzen, euren titulua europar eskakizunetara egokituta aterako duten lehenengo euskal ikasleak izango dira.

## **Prestakuntzaren europar trena: hezkuntzaren berringeniaritza**

Mondragon Unibertsitateak bere makinak jarri ditu abian Europako prestakuntzaren trena hartzeko. Izan ere, Unibertsitateak datorren ikasturteetik aurrera eskainiko duen irakaskuntza egokituak oso eredu desberdina du ohiko irakaskuntzaren aldean. Ereduaren azken helburua ikasleei gaitasun pertsonal, sozial eta profesionalean trebatzea da, lan-munduari erronka berriei aurre egiteko. Horrela, hezkuntzaren ardura bereganatzeko, taldean lan egiteko, proiektuak zuzentzeko, erabakiak hartzeko, negoziatzeko eta komunikatzeko gauza izango diren pertsonak izango dira.

Hitz gutxitan, ezagutzaren transmisioa eta irakaslearen protagonismoa oinarri zituen irakaskuntza-eredu klasikoan atzean utzi eta gaitasunak, irakaslearen autonomia eta beste gaitasun batzuen garapena oinarri dituen beste irakaskuntza-eredu bat bereganatzea du helburu sistema berriak. Sistema horrek irakaslearen parte-hartzea, lankidetzeta eta erantzukizunak hartzea sustatzen ditu. Horren arabera, ikaslea hezkuntza-prozesuaren erdigunean dago, eragile proaktibo bihurtzen da.

Ildo horretan, irakaskuntza-eredu berrian, irakasgaiak lanbideari begira diseinatuta daude, hau da, lortu nahi den emaitzari begira. Ereduak aintzat hartzen dituen kontzeptuen artean ondorengoak daude: diziplinartekotasuna, elkarrengandua eta irakasgaien osagarritasuna. Prestakuntza teknikoarekin batera, hezkuntza-eredu berriaren beste zutabe garrantzitsu bat trebetasunak, gaitasunak eta balioak garatzea da, hau da, ikasleak zeharkako gaitasunak hartzea, ikuspegi teknikoetik ez ezik, pertsonaletik ere hezkuntza hobea ziurtatzeko. Liderra izateko, taldean lan egiteko, komunikatzeko eta ekintzaile izateko gaitasunak dira horiek. Horrez gain, eredu hirueleduna da eta, hortaz, ikasprozesuaren bukaeran, ikasleak bere lan-jarduera, gutxienez,



euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez aurrera eramateko gauza izan behar du.

Halaber, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek eskaintako aukerak osorik erabiltze dira eredu berrian.

Sustraitik aldatuko den beste elementu bat irakaslearen eginkizuna da. Izan ere, eredu berrian, irakaslea tutore antzeko bat izango da eta eginkizun garrantzitsua izango du ikaslearen hezkuntza sustatzeko. Irakasleak inplikazio zuzena du ikasteko prozesuaren kudeaketan eta, gainerako irakasleekin batera, talde-lana egiten dute ikasleak jaso beharreko gaitasunak finkatzeko xedez. Halaber, ikaslearen beraren eginkizuna ere aldatu egingo da: bere ikasprozesuaren subjektu aktibo bihurtuko da, ereduak ikasketa autonomoa eta kooperatiboa bultzatzen baitu, lantaldeen bidez.

Plangintza akademikoari dagokionez, ikasleak ikasgelan emandako denbora eta ikasgelatik kanpo egindako lana hartuko dira kontuan ikasprozesuaren balorazioa egiteko. Hau da, ikasleak egindako lan guztia aintzat hartuko du plangintzak, ikasgelaren barruan zein kanpoan. Unibertsitateak, berriz, bere esku dagoen guztia egingo du ikasleak bere ikasketak ezarritako epean amaitu ditzan. Balorazio-sistema egiteko ere azken azterketetan oinarritutako ereduak desagertu eta ikasleak egindako lan guztiaren eta hartutako gaitasun guztien gaineko etengabeko ebaluazioa erabiliko da. Hau da, etengabeko balorazioaren eta balorazio orokorraren kontzeptuak erabiliko dira.

Era berean, eredu berriaren arabera, ikasleak erabateko prestakuntza praktikoa burutuko dute enpresa errealean. Ildo horretan, karrera-bukaerako proiektuak egitean, benetako proiektuak gauzatuko dituzte. Orobat, ikasleen mugikortasun-ratioaren aldetik, helburua ehuneko ehunera iristea da, hau da, ikasle guztiek atzerrian egonaldi bat egingo dutela ziurtatzea.

### **Eskaintza akademikoa**

Datorren ikasturteetik aurrera, Unibertsitateak europar espaziora egokitutako zortzi titulazio eskainiko ditu ingeniariaren eta enpresa-zientzien alorretan. Hain zuzen, Goi Mailako Eskola Politeknikoak ondorengo titulazioak eskainiko ditu:

- Industriako Ingeniaritza Gradua
- Telekomunikazioetako Ingeniaritza Gradua
- Ingeniaritza Mekanikoan Gradua
- Industria Elektronikako eta Automatikako Ingeniaritza Gradua
- Industria Antolamenduko Ingeniaritza Gradua
- Informatikako Ingeniaritza Gradua
- Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradua

Milurteko berriko ingeniariak etengabe eguneratu behar ditu bere prestakuntza, informazioa eskuratzeko gaitasuna, ingurunearekin dituen elkarreraginak eta garapen integrala, ezagutzaren gizarteari begira. Ingeniariak behar duen prestakuntza etengabea, diziplinartekoa eta moldakorra oinarri harturik, titulazio berriekin, uneoro planifikatu, garatu eta gestionatu behar ditu bere lanbide-karreraren diseinua eta ezarpena. Horrek inplikazio asko ditu lanaren eta gizartearen aldetik. Ikasleak bere ingurune teknologiko eta sozialaren gaineko know-how-a eguneratuta eduki behar du, bere lanbidearen profila eta ibilbidea gizartean hautemandako beharretarako egokiak izan daitezen beti.

Bestalde, Enpresa Zientzien Fakultateak ere europar espaziora egokituta eskainiko du Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua. Prestakuntza horrek enpresen zuzendaritzaren inguruko ikuspegi orokorra emango dio ikasleari, irakaskuntza-metodologia berritzaileak erabiliz. Hala, jasotako ezagutza, gaitasun eta balioek mundu profesionalean arrakastaz jarduteko aukera emango diote ikasleari. Horren emaitza mundu globalizatuan eta eleaniztunean lan egiteko hobeto prestatutako ikaslea izango da. Ikasleek egonaldiak egingo dituzte atzerriko unibertsitateetan eta enpresetan eta jardura akademikoak hainbat hizkuntzatan gauzatzeko gai izango dira. Hitz gutxitan, enpresen aldaketa bultzatu eta gestionatzeko gauza izango dira, enpresa-bikaintasuna lortzea helburu dutela.